

Oharra:

Honako dokumentu hau Eusko Jaurlaritzak itzuli du euskarara eta Eskualdeetako Komiteak, beraz, ez du horretan erantzukizunik.

Nota:

La traducción de este documento al euskera ha sido realizada por el Gobierno Vasco y no compromete la responsabilidad del Comité de las Regiones.

ESPAINIAKO ERRESUMAREN ETA ESKUALDEETAKO KOMITEAREN ARTEKO ADMINISTRAZIO AKORDIOA

Espainiako Erresumak, batetik, eta Eskualdeetako Komiteak, bestetik;

Kontseiluak 2005eko ekainaren 13an onartutako ondorioak ikusi dituzte, beste hizkuntza batzuk ere modu ofizialean erabili ahal izan daitezen, bai Kontseiluan, bai eta, hala badagokio, Europar Batasuneko beste instituzio eta organo batzuetan ere;

Batasuna herritarrengandik hurbilago egoteko ahalegin horretan, beharrezkoa da, ahal den neurrian, herritarrei eta beren ordezkarietara instituzioekin norberaren ama-hizkuntzan komunikatzeko aukera ematea, hori garrantzi handikoa baita Batasunaren proiektu politiko honekin duten identifikazioa indartzeko;

ESPAINIAKO ERRESUMAREN ETA ESKUALDEETAKO KOMITEAREN ARTEKO ADMINISTRAZIO AKORDIOA egitea onartu dute, era horretara, Espainiako Konstituzioan aitortutako estatutua duten espainieraz/gaztelaniaz ez beste hizkuntzak modu ofizialean erabiltzeko aukera egon dadin Eskualdeetako Komitean.

Lehen klausula

1. Arestian esan bezala, Kontseiluak 2005eko ekainaren 13an onartutako ondorioak aintzakotzat hartuta, eta 2. paragrafotik 4.era bitartekoetan jasotako baldintzetan, Espainiako edozein herritarrek du Eskualdeetako Komiteari komunikazioa idatziz igortzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren arabera Espainiako lurralde osoan zein zati batean estatutu ofiziala duten espainieraz/gaztelaniaz ez beste hizkuntzetakoren batean.

2. Espainiako herritar batek Eskualdeetako Komiteari 1. puntuari adierazitako hizkuntzetakoren batean idatzitako komunikazioa igorri nahi dionean:

a) Gobernu espainiarrak berariaz horretarako izendatuta, horretan eskumena duen organoari igorriko dio komunikazio hori, eta organo horrek Eskualdeetako Komitearen Idazkaritza Nagusira bidaliko du, komunikazioaren espainiera/gaztelarazko itzulpen ziurtatu batekin; komunikazioa jaso izanaren eguna, batez ere, Eskualdeetako Komiteak herritarrari erantzuna emateko epe jakina duenean, Eskualdeetako Komiteak organo horrengandik komunikazioaren itzulpen ziurtatua jaso duen eguna izango da.

b) Eskualdeetako Komiteak espainieraz/gaztelaraz bidaliko dio erantzuna aipatutako organoari, eta organo horrek interesdunari igorriko dio berriz, komunikazioa jatorriz idatzi zen hizkuntza berberera egindako itzulpen ziurtatu batekin. Eskualdeetako Komiteak ez du inolako erantzukizunik izango itzulpeni dagokienez; gainera, itzulpenen testuan berariaz aipatuko da inguruabar hori.

3. Komunikazioa idatzi duen herritarrak Eskualdeetako Komitearen erantzuna bideratu ahal izateko epe jakina duenean, eta 2. puntuari ezarritakoaren salbuespen modura, Eskualdeetako Komiteak zuzenean igorriko dio erantzuna herritarrari espainieraz/gaztelaraz, eta jakinaraziko dio horretan eskumena duen organoak itzulpen ziurtatua bidali beharko liokeela komunikazioa bidali zen jatorrizko hizkuntzan. Era berean, Eskualdeetako Komiteak

herritarrari jakinaraziko dio erantzun horri erantzunez jarduteko epea orduantxe hasiko dela, alegia, erantzuna espainieraz/gazteleraz jaso den egunean bertan.

Eskualdeetako Komiteak bere erantzunaren kopia bat bidaliko dio eskumena duen organoari, organo horrek herritarrari erantzunaren itzulpen ziurtatua eman diezaion komunikazioa bidali zen jatorrizko hizkuntzan. Eskualdeetako Komiteak ez du inolako erantzukizunik izango itzulpenei dagokienez; gainera, itzulpenen testuan berariaz aipatuko da inguruabar hori.

4. Herritarrak 1. puntuan jasota dauden hizkuntzetako batean Eskualdeetako Komiteari komunikazioa zuzenean igortzen dionean, Eskualdeetako Komiteak berriz ere igorleari bidaliko dio komunikazioa, eta jakinaraziko dio kopia bat bidali diola Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrari, ordezkaritza horrek gobernu espainiarrak izendatutako organo eskudunari eska diezaion komunikazioaren espainiera/gaztelerazko itzulpen ofiziala.

Era berean, Eskualdeetako Komiteak interesdunari jakinaraziko dio bere komunikazioari lehenbailehen erantzungo diola aipatutako itzulpen hori jasotakoan. Eskualdeetako Komiteak 2. eta 3. puntuetan jasotako prozeduren arabera jardungo du.

5. Administrazio-akordio hau sinatu duten alderdiek hitza eman dute hartu beharreko neurri guztiak hartuko dituztela, uneoro isilpekotasun-arloan dauden arauak errespetatuta, Akordio honen babesean egindako komunikazio guztiak isilpean gorde daitezten, batez ere, gobernu espainiarrak izendatutako organo eskudunak egin behar duen itzulpenari dagokionez.

Bigarren klausula

6. Eskualdeetako Komiteko kide batek edo batzuek, osoko bilkura baten barruan, Espainiako Konstituzioan aitortutako estatutua duten espainieraz/gaztelaniaz ez beste hizkuntzetako edozein erabili ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrak, gutxienez, dena delako osoko bilkura egin baino zazpi aste lehenago, Eskualdeetako Komitearen Idazkaritza Nagusiari jakinarazi behar dio Eskualdeetako Komiteko kide horiek beren ahozko hitzaldietan hizkuntza horietakoren bat erabiltzeko asmoa dutela (interpretazio pasiboa); egindako eskaera hori behin betiko baietsi beharko da, beranduenik ere Komitearen bilkura izan baino hamalau egun natural lehenago.
- Hasteko, eskaera aintzakotzat hartuko da, baldin eta Eskualdeetako Komitearen Idazkaritza Nagusiak, interpretazioaz arduratzen den zerbitzuari kontsulta eginda, Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrari jakinarazten ez badio, beharrezko diren giza baliabideak eta bitartekoak nahikoak ez direla-eta, eskaerari baietz erantzutea ezinezkoa dela.

7. Interpretazio pasiboa eskaintzeko zerbitzuak zuzenean zein zeharka dakartzan gastuak, alegia, interpretazioaz arduratzen den zerbitzuak Batzordeari fakturatutakoak, baita saioa bertan behera geratzen bada ere, Espainiako Ordezkaritza Iraunkorraren kontura izango dira, 8. eta 9. puntuetan agindutakoari jarraituz.

Hirugarren klausula

8. Eskualdeetako Komiteak administrazio-akordio hau aplikatutakoan zuzenean zein zeharka sortzen diren kostuak hartuko ditu bere gain Espainiako gobernuak.

9. Horri lotuta, Eskualdeetako Komitearen Idazkaritza Nagusiak sei hilero oharra aurkeztuko du kostu horiek guztiak zehaztuta, eta Espainiako gobernuak hilabeteko epea izango du diru-kopuru hori ordaintzeko, jakinarazpena egin den egunetik hasita.

Laugarren klausula

10. Akordioa sinatutakoan, Eskualdeetako Komitearen Idazkaritza Nagusiak Espainiako gobernuari akordioa aplikatzeko beharrezko diren neurri guztiak hartu direla jakinarazten dionean, orduantxe hasiko da akordio hau aplikatzen. Dena dela, Espainiako gobernuak Eskualdeetako Komitearen Idazkaritza Nagusiari jakinarazten dionean 2. eta 3. puntuetan adierazitako itzulpenak egiteko izendatu duen organismoa zein den, orduan hasiko dira aplikatzen lehendabiziko klausulako xedapenak.

11. Administrazio-akordio hau berriz aztertu behar dela edo amaitu egin behar dela erabaki dezakete bi alderdiek. Bi alderdiek akordioa nola ari den aplikatzen aztertuko dute, indarrean hasi eta handik urtebetera.

12. Espainiako Erresumaren ordezkari iraunkor den enbaxadoreak eta Eskualdeetako Komitearen idazkari nagusiak jagon behar dute akordio hau egokiro aplika dadin.

Bruselan egin, 2005eko azaroaren 16an

Ana Isabel Leiva Díez

Administrazio Publikoetako Ministerioaren Lankidetzarako estatu-idazkaria

Peter Straub

Eskualdeetako Komitearen lehendakaria